2006

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

n.º 18

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco

## Bisitari atzerritarrak Euskal Herrian
## FRONTUR 2005

## Los visitantes extranjeros en el País Vasco
## FRONTUR 2005



MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© «Argazki» Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arazola

Eusko Jaurlaritzak aurten ere aurkeztu du Azterketa Turistikoen Institutuak landutako Mugetako Mugimendu Turistikoak (FRONTUR) proiektuaren estatistika jarraituaren Euskal Autonomia Erkidegorako berariazko ustiapena, Euskadin dagoen turismo-errealitatea ulertzeko ahaleginaren zati gisa.

*El Gobierno Vasco presenta un año más los resultados de la explotación específica para la Comunidad Autónoma Vasca de la estadística continua de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) del Instituto de Estudios Turísticos, como parte del esfuerzo por la comprensión de la realidad turística existente en Euskadi.*

## FRONTUR operazioa

## *La operación FRONTUR*



Txosten honetako informazioa 2005. urteari buruzkoa da. Informazio hori 1998. urtetik hasita ondorengo urteetako informazioari gehitu behar zaio Euskal Autonomia Erkidegora etortzen diren turista atzerritarren eskaeraren portaera eta haien joerak urtez urteko egoeretatik haratago definitzen dituzten egiturazko ezaugarriei buruzko irudi zehatza deskribatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eskerrik beroena adierazi nahi dio Azterketa Turistikoen Institutuari, Institutuak berak eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sinatutako hitzarmenaren esparruan eskaini duen laguntzagatik. Horri esker, nazio mailan turismoaren alorrean dagoen estatistika sendoenetariko baten oinarrizko fitxategiak aztertzeko aukera izan dugu.

*La información contenida en este informe se refiere al año 2005, y se viene a sumar a la existente en años anteriores en una serie que comienza en 1998, para dibujar una imagen precisa de los rasgos estructurales que definen el comportamiento de la demanda turística extranjera con destino en el País Vasco y sus tendencias, más allá de las coyunturas anuales.*

*El Departamento de Industria y Comercio y Turismo del Gobierno Vasco quiere agradecer la colaboración prestada por parte del Instituto de Estudios Turísticos en el marco del convenio suscrito entre ambas instituciones, que permite el acceso a los ficheros de una de las estadísticas más robustas del panorama estadístico nacional en el ámbito del turismo.*

**Fitxa teknikoa:**

Espainiara hilero-hilero mugak zeharkatuz iristen diren fluxu turistikoak neurtzeko oinarrizko iturri ofiziala da FRONTURen estatistika. Estatistika hori etengabea da, eta 2005-2008 Estatistika Plan Nazionalaren barnean dago, 4244. zenbakiarekin.
Argitalpen honetan aurkezten diren taulak egiteko erabili den informazioa bidaiariei egindako inkestetatik atera da. Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu zuten bidaiariei egin zitzaizkien inkesta horiek, Espainiara aireportuz eta errepidez sartzean. Horretarako 10.000 inkestatik gora egin dira.

***Ficha técnica:***

*La estadística de FRONTUR es la fuente oficial básica para la medición de los flujos turísticos que llegan a España mes a mes por las distintas fronteras. Tiene carácter continuo y forma parte del Plan Estadístico Nacional 2005-2008 con el Nº. 4244.*
*La información utilizada para la realización de las tablas que se presentan en esta publicación procede de las encuestas realizadas a los viajeros en las entradas a España por aeropuerto y carretera que visitaron el País Vasco. Para ello se han realizado más de 10.000 encuestas.*

# Atzerrian bizi eta EAE aukeratu duten bisitarien tipologia

## *Tipología de visitantes residentes en el extranjero con destino en el País Vasco*

EAE aukeratu duen bisitari mota. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2005. urtean atzerrian bizi direnen 8,8 milioi bisita erregistratu dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Kopuru hori 2004. urtearekin alderatzen badugu, % 9 igo da.

Bisita gehienak, 7.900.000, hau da, ia % 9, gaualdirik gabeko jarduera turistikoari dagozkionak dira, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez gaualdi bat egin zuten turistak, ordea, 927.000 izan ziren.

Igoera nabarmen hori txangozale atzerritarrek duten bizitasunak eragin du batez ere. Aurreko urtearekin alderatuta, izandako 740.000 bisiten artetik 690.000 egun bakar batean egindako jarduerei dagozkie. Nolanahi ere, atzerritarren bisitari guztien hazkundearen erritmoa motelagoa eta pisua txikiagoa izan bada ere, etorrerei dagokienez, turismoak erabateko errekorra lortu du 2002. urtean izandako bultzada berreskuratu baitu, eta milioi bat bisitari izatera iristen ari baita poliki-poliki.

Argi dago Euskal Autonomia Erkidegoan urtetik urtera txangozale atzerritarrek duten pisu nabarmena dela gure turismo-eskariaren ezaugarri nagusietako bat; alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Frantziaren arteko mugaren bi aldeetako harreman-maila handia delako, bai profesional-mailan, bai arlo pertsonalean eta afektibitatearen arloan; eta beste alde batetik, gure autonomia erkidegoak aisiarako eta merkataritzako trukaketetarako duen erakargarritasuna handia delako, nahiz eta harremanen hurrenkeraren arabera, harreman hori nazioartekotzat hartu ordez lurraldekotzat har daitekeen.

*El País Vasco ha registrado durante 2005 8,8 millones de visitas de residentes en el extranjero, con un importante crecimiento del 9% respecto a 2004.*

*El grueso de las visitas, 7.900.000, que vienen a suponer casi 9 de cada 10, corresponden a una actividad excursionista, sin pernoctación, por 927.000 turistas que realizaron al menos una pernoctación en el País Vasco.*

*Este importante crecimiento viene dado principalmente por la vitalidad que presenta el excursionismo extranjero. De las 740.000 visitas más recibidas en relación al año anterior, 690.000 corresponden a actividades dentro de una sola jornada. No obstante, el turismo, a pesar de su menor ritmo de crecimiento, y de su peso minoritario en el total de visitas extranjeras, registra un record absoluto de llegadas, recuperando el empuje que ya registró en 2002, y se acerca paulatinamente al hito del millón de visitas.*

*El enorme peso que año tras año tiene en nuestra comunidad el excursionismo extranjero es sin lugar a dudas uno de los rasgos más significativos de nuestra demanda turística, reflejo por un lado del enorme grado de interrelación existente entre los dos lados de la frontera vasco-francesa tanto a nivel profesional como en el ámbito de lo personal y afectivo, y por el otro de su enorme atractivo para el ocio y los intercambios comerciales, si bien dentro de un orden de relación que podría considerarse más regional que internacional.*

EAE aukeratu duen bisitari mota. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2002 -2005
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco. Comparación Estado-C.A. País Vasco 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadi mugatik hurbil egoteak eta haren ezaugarri diren mugaz gaindiko ohiko harremanen bizitasunak honako hau dakar: estatuarekin alderatuta, atzerritarren bisiten egitura oso bestelakoa izatea; izan ere, estatuko jarduera turistikoa txangozaleena baino askoz handiagoa da.

Hala eta guztiz ere, txangozaleen bisitak gero eta ugariagoak dira bi inguruetan, gora egiten ari bada ere askoz ere abiadura motelagoa duen turismoarekin alderatuta.

*La disposición fronteriza de Euskadi, así como la vitalidad de las relaciones transfronterizas de orden cotidiano por la que se caracteriza, se expresa en una estructura de visitas extranjeras notoriamente diferente a la estatal, donde la actividad turística es mayoritaria frente a la excursionista.*

*En cualquier caso, los flujos excursionistas han ido ganando en ambos entornos peso frente a un turismo que, aún en crecimiento, registra una vitalidad más moderada.*





Euskadin izan diren atzerritarren bisiten artean txangoak egiteak duen garrantzia aintzat hartzen badugu, eta aire bidez etortzen den distantzia handiko txangozalerik ia ez dagoela kontuan hartzen badugu, bisitari gehienak errepidez etortzen dira. Euskadira etortzen diren atzerritarren ia % 97k garraiobide hori aukeratzen dute.

Aireko bidea, ordea, ez da garrantzirik gabekoa, zeren turisten % 29k bide hori aukeratzen baitu.

Poliki bada ere, aireko turismoaren pisuak, pixkanaka-pixkanaka, gora egin du azken urte hauetan; nolanahi ere, 2004. urtean nabarmen egin zuen gora eta horren arrazoia gehiago izan zen errepidez etorri ziren bisitarien kopuruak egiaz gora egin zuelako, errepidez etorri ziren turisten guztizko kopuruak behera egin zuelako baino.

*Dado el peso del excursionismo entre las visitas extranjeras en Euskadi, y considerando que prácticamente no existe un excursionismo de larga distancia por tránsito por vía aérea, el acceso por carretera resulta absolutamente masivo. Es utilizado por casi un 97% de los extranjeros que llegan a Euskadi.*

*La vía aérea no es, sin embargo, en absoluto irrelevante, dado que entre el turista hasta un 29% recurre a esta vía.*

*El peso del turismo aéreo ha ido subiendo a lo largo de los últimos años paulatina aunque suavemente, si bien en 2004 se produjo un pico especialmente elevado, más debido a un descenso en el número total de turistas que afectaba principalmente al turista que accedía por vía terrestre que a un incremento real de los volúmenes de visita por vía aérea.*

EAE aukeratu duen bisitari mota, garraiobidearen arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Tipo de visitantes con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

# EAE aukeratu duten turistak

# *Turistas con destino en el País Vasco*

## Garraiobidea

## *Modo de transporte*

2005. urtean 2004. urtean baino 50.000 turista gehiago iritsi ziren Euskadira. Igoera nabarmena da, eta horri esker, datuak hasten direnetik bisitari kopuru handiena lortu da, 927.000 bisitatik gora hain zuzen ere. Aurreko urtearekin alderatuta izan den igoera nabarmena errepidez egindako bisitak asko igo direlako gertatu da eta horrek soberan konpentsatzen du aireportuz etorritako bisitarien kopurua pixka bat murriztu izana.

Horri dagokionez, 2005. urtea nolabaiteko inflexio-puntua da 2001. urtearen amaieran gertatutako aireko atentatuen ondoren aireko garraioaren pisuaren beherakadaren ondoren izandako susperraldirako joerarekiko. Urte horien aurretik erabiltzen ziren bideen mailetara ia iritsi bazen ere, 2005. urtean aireko garraioa Euskadiko turismoaren % 30etik beherakoa da berriz ere, nahiz eta turismo horren pisua 2003. urtekoa baino handiagoa den.

Euskadira iristen den turismoa eta Estatuko gainerako lekuetara joaten den turismoa alderatuta, aireko bidea oso gutxi garatu izanak adierazten du turismo-eskaria oso desberdina dela, hau da, estatuko eskaintzetan eguzkia eta hondartza nahi duten turistak azaltzen dira, Euskadiko turistek, aldiz, ez dute eskari hori egiten. Nolanahi ere, horrek esan nahi du bereziki Euskadira bideratuta dauden ustiatu gabeko merkatuak (distantzia ertain eta luzekoak) ere badaudela. Merkatu horietara plataforma berriak, esate baterako, kostu txikiko hegaldiak erabiliz irits daitezke bidaiariak. Era berean adierazten du hiri-turismoaren edo kultura-turismoaren ereduak bila ditzaketela; errepidez etortzen diren eta gaur egun jada badauden turistek (distantzia labur eta ertainekoak) jotzen dute eredu horietara.

*Son casi 50.000 turistas más los que registra Euskadi en 2005 frente a 2004. Es un incremento sustancial, que permite lograr la cifra más importante de visitas desde que comienza la serie de datos, por encima de las 927.000 visitas. El fuerte incremento sobre el año anterior viene motivado por un fuerte aumento de las visitas realizadas por carretera, que compensa con creces el leve decremento sufrido por los accesos aeroportuarios.*

*A este respecto, 2005 supone un cierto punto de inflexión respecto a la tendencia a la recuperación del peso del transporte aéreo tras su caída después de los atentados aéreos acaecidos a finales de 2001. Tras casi recuperar los niveles de uso previos a esas fechas, en 2005 el transporte aéreo vuelve a suponer menos de un 30% del turismo que recala en Euskadi, aunque el peso es aún así superior al que se dio en 2003.*

*El escaso desarrollo de la vía aeroportuaria entre el turismo que accede a Euskadi, comparado con otras zonas del Estado, es reflejo de una demanda turística sustancialmente diferente, alejada de los modelos de sol y playa predominantes en aquellas ofertas. No obstante, también denota la existencia de mercados sin explotar, de media y larga distancia y específicamente orientados a Euskadi, a los que acceder desde nuevas plataformas como puedan ser los vuelos de bajo coste, y que puedan buscar modelos de turismo de ciudad o cultural como los que consumen los turistas ya existentes, de corta y media distancia y que tienden a acceder por vía terrestre.*



Euskadira etortzen diren turisten artean aisialdi-turismo moten garrantzia etengabe igotzen ari denez, urtarokotasunak gero eta garrantzi handiagoa du turismoaren portaeran. Udako hilabeteetan, batez ere abuztuan eta uztailean, eta gutxiago bada ere, irailean ere bai, bisita turistikoen % 47 biltzen da.

Batez ere abuztuan eta irailean (hemen gutxiago) atzematen dira turismo-portaeraren urtarokotasunari lotutako igoerak.

Errepideko turismoak airekoak baino gehiago hartzen ditu kontuan urtaroak. Udako hilabeteetan errepideko turisten % 53 etortzen da, airekoak, berriz, % 33 bakarrik.

*El progresivo incremento del peso de los diferentes tipos de turismo de ocio entre los turistas que recalan en Euskadi genera un constante aumento del carácter estacional del comportamiento turístico. Los meses de verano, principalmente agosto y julio, y en una medida ya menor, también septiembre, reúnen por sí solos el 47% de las visitas turísticas.*

*Particularmente agosto, pero también septiembre, son los meses que absorben los incrementos asociados a la progresiva estacionalidad del comportamiento turístico.*

*El turismo terrestre es mucho más estacional que el aéreo. Los meses veraniegos acogen al 53% de los turistas entre los primeros, por solo al 33% de los segundos.*

EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. Hilen arteko bilakaera 2003-2005
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2003-2005*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2003 | **Guztira/*Total*** | 904.144 | 653.706 | 250.438 |
| | Urtarrila/*Enero* | 51.373 | 34.593 | 16.780 |
| | Otsaila/*Febrero* | 43.645 | 29.355 | 14.290 |
| | Martxoa/*Marzo* | 52.132 | 34.624 | 17.508 |
| | Apirila/*Abril* | 70.109 | 47.471 | 22.638 |
| | Maiatza/*Mayo* | 73.862 | 49.282 | 24.580 |
| | Ekaina/*Junio* | 69.486 | 49.713 | 19.773 |
| | Uztaila/*Julio* | 149.048 | 122.872 | 26.176 |
| | Abuztua/*Agosto* | 157.792 | 130.959 | 26.833 |
| | Iraila/*Septiembre* | 80.372 | 54.373 | 25.999 |
| | Urria/*Octubre* | 51.475 | 31.898 | 19.577 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 48.564 | 30.784 | 17.780 |
| | Abendua/*Diciembre* | 56.286 | 37.782 | 18.504 |
| 2004 | **Guztira/*Total*** | 878.084 | 597.793 | 280.291 |
| | Urtarrila/*Enero* | 44.356 | 26.730 | 17.626 |
| | Otsaila/*Febrero* | 39.030 | 23.556 | 15.474 |
| | Martxoa/*Marzo* | 42.591 | 20.247 | 22.344 |
| | Apirila/*Abril* | 58.308 | 38.929 | 19.379 |
| | Maiatza/*Mayo* | 65.181 | 36.088 | 29.093 |
| | Ekaina/*Junio* | 73.428 | 49.291 | 24.137 |
| | Uztaila/*Julio* | 145.962 | 117.679 | 28.283 |
| | Abuztua/*Agosto* | 142.722 | 112.970 | 29.752 |
| | Iraila/*Septiembre* | 89.687 | 57.637 | 32.050 |
| | Urria/*Octubre* | 66.707 | 42.205 | 24.502 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 43.371 | 26.182 | 17.189 |
| | Abendua/*Diciembre* | 66.741 | 46.279 | 20.462 |
| 2005 | **Guztira/*Total*** | 927.047 | 657.453 | 269.594 |
| | Urtarrila/*Enero* | 39.625 | 25.403 | 14.222 |
| | Otsaila/*Febrero* | 34.523 | 22.418 | 12.105 |
| | Martxoa/*Marzo* | 48.033 | 26.469 | 21.564 |
| | Apirila/*Abril* | 56.542 | 35.780 | 20.762 |
| | Maiatza/*Mayo* | 67.978 | 43.828 | 24.150 |
| | Ekaina/*Junio* | 70.691 | 49.081 | 21.610 |
| | Uztaila/*Julio* | 143.191 | 115.847 | 27.344 |
| | Abuztua/*Agosto* | 192.788 | 164.125 | 28.663 |
| | Iraila/*Septiembre* | 102.020 | 68.576 | 33.444 |
| | Urria/*Octubre* | 59.844 | 36.422 | 23.422 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 54.010 | 31.013 | 22.997 |
| | Abendua/*Diciembre* | 57.800 | 38.489 | 19.311 |




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Horretaz gain, errepidezko turismoarekin alderatuta, badirudi airekoak iraila aukeratzeko joera handiagoa duela —joera hori oraindik ere gehiago sendotu da 2005. urtean—; izan ere, irailean etortzen diren bidaiarien kopurua uztailean edo abuztuan etortzen direnak baino handiagoa da.

Errepidezko turismoaren proportzioarekin alderatuta, aireko turismoaren pisu handieneko hilabeteak udatik kanpoko oporraldikoak dira, hots, Aste Santuko edo Eguberrietako oporraldietakoak. Hain zuzen ere, gai horri dagokionez, martxoa, apirila edo abendua nabarmentzen dira, eta orokorrean udazkena.

Bidaiari kopuruari dagokionez, Euskadiko turismoaren kota altuenak 2005. urtean izan ziren.

2004. urtearekin alderatuta, igoera horri eusten zaio, alde batetik, errepidez iristen diren bidaiariak nabarmen hazi direlako, 2003. urtean baino gehiago iritsi baitziren; eta beste alde batetik, hegazkinez iristen direnen kopurua egonkorra delako, nahiz eta 2001. urteko atentatuen ondoren hainbat urtetan etengabe gorantz egin ostean atzera egin den.

Urteetako gorabeherak alde batera utzita, bi joera horiei eutsi zaienez gero, datozen urteetan milioi bat turista atzerritar izatera irits gaitezkeelakoan gaude.

*Además, frente al turismo terrestre, el aéreo presenta, en una tendencia que se afianza aún más en 2005, una cierta predisposición por septiembre, con volúmenes de recepción de viajeros que se sitúan por encima de los existentes durante los meses de julio o agosto.*

*Los meses con un mayor peso del turismo aéreo, en su comparación proporcional con el terrestre, son los relacionados con las temporadas vacacionales fuera de la temporada veraniega, como la Semana Santa o la Navidad. Concretamente destacan a este respecto meses como marzo, abril, o diciembre, y, en general, el otoño.*

*El turismo alcanza en 2005 en Euskadi sus cotas más elevadas en cuanto a volumen de viajeros.*

*Este crecimiento se sustenta, por un lado, en un fuerte crecimiento de los viajeros que acceden por carretera con respecto a 2004, incluso superando los existentes en 2003, y, por otro, en la estabilidad, aún con cierto retroceso, de los existentes por avión, tras algunos años de continuo alza tras los atentados de 2001.*

*El mantenimiento de ambas tendencias, fuera de contingencias anuales, permite augurar el alcance de la cifra de referencia del millón de turistas extranjeros en los próximos años.*



EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Turisten hilen arteko bilakaera, garraiobidearen arabera 2003-2005
*Evolución mensual de los turistas por modo de transporte 2003-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bizilekua

## *Lugar de residencia*

Garraiobide gisa errepidea hegazkina baino gehiago erabiltzeak esan nahi du Euskadira batez ere distantzia labur eta ertaineko turistak etortzen direla. Frantziatik datozen turistak (turista guztien % 42 inguru) funtsezkoak dira turistaren jatorriaren araberako osaeran. Soil-soilik lurreko bidea kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu alor horrek bisita turistikoen % 60 inguru lortzen duela.

2005. urtean 390.000 frantses iritsi ziren Euskal Autonomia Erkidegora; horrek esan nahi du kopuru hori 2002. eta 2003. urteetako mailetatik hurbil dagoela, nahiz eta urte batean kopuru hori nabarmen jaitsi. Erresuma Batutik, Alemaniatik, Italiatik eta Portugaletik bidaiari asko etortzen dira (60.000-80.000 bidaiari). Herrialde horien artetik azpimarratu behar da Alemaniatik eta Italiatik etorritako bisitarien kopuruak gorantz egin duela, Erresuma Batutik etorritakoenak, berriz beherantz, batez ere hegazkinez bidaiatzen dutenen artetik.

Alemaniako, Erresuma Batuko edo Italiako turisten batez besteko handi bat hegazkinez etortzen da Euskadira. Hegazkinez etortzen diren turista gehienak Erresuma Batukoak eta Alemaniakoak badira ere, aukera horren jatorriaren araberako multzoketa oso banatuta dago. Halaber, Europako gainerako herrialde guztien esku-hartzea aipatu behar da; izan ere, azken bi urte hauetan herrialde horietako turista kopurua etengabe eta nabarmen hazi da.

*El dominio de la carretera sobre el avión como medio de transporte es indicador de la atracción preferente de Euskadi de un turismo de corta y media distancia. El turista con origen francés resulta, con una aportación cercana al 42% del total, clave en la composición por origen del turista. Si atendemos únicamente a la vía terrestre, este dominio alcanza casi el 60% de las visitas turísticas.*

*En 2005 llegaron al País Vasco casi 390.000 franceses, lo que supone acercarse a los niveles de 2002 y 2003 después de un año de fuerte recesión. Otros países con volúmenes significativos de viajeros, con rangos de aportación que se sitúan entre los 60.000 y los 80.000 viajeros, son el Reino Unido, Alemania, Italia y Portugal. Entre ellos, son de destacar las sistemáticas tendencias al alza de las visitas de alemanes e italianos y también el descenso britanico, sobre todo en viajeros de avión.*

*Los turistas de Alemania, Reino Unido o Italia se orientan en una medida importante al avión para acceder a Euskadi. Aunque dominada por el Reino Unido y Alemania, la distribución por orígenes de esta aportación está muy repartida. Destaca, además, la contribución conjunta del resto de países europeos, por los continuos e importantes incrementos que vienen registrando en los dos últimos años.*

EAE aukeratu duten turistak, garraiobidearen eta bizilekuaren arabera. 2003-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por modo de transporte y lugar de residencia. Evolución anual 2003-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskal Autonomia Erkidegoa aukeratu duten turistak, bizilekuaren arabera. 2003-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2003-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadira iristen diren atzerriko turista gehienak Gipuzkoara etortzen dira. Nolanahi ere, lurralde historiko hori gailentzen da Frantziako turista asko etortzen delako, atzerritarren artean turista horiek nagusitzen baitira Gipuzkoan.

Bestalde, ekarpen garrantzitsua duten jatorrien artean, Gipuzkoan alemaniarrak nagusitzen dira zertxobaita. Nagusitze hori are nabarmenagoa da hurrengo hartzailearekin alderatzen badugu, izan ere, % 10etik % 15era bitartekoak dira bigarren mailako ekarpenak egiten dituzten Europako herrialde guztien eta Europakoak ez diren herrialde guztien artean; nolanahi ere, aukera hori ez da inolaz ere Frantziako turistek erakusten duten adinakoa.

Gainerako merkatuei dagokienez, azken urte hauetan Bizkaiak lortu eta Gipuzkoaren kopurura iristea eta kopuru hori gailendu ere egin du, Arabak, berriz, bizitasun txikia erakutsi du erakargarritasunari dagokionez.

*Gipuzkoa es el territorio principal para la acogida de turistas extranjeros en Euskadi. Sin embargo, su dominio se sustenta sobre todo en la predisposición mayoritaria del turista francés, claramente dominante en Euskadi entre los extranjeros, por este territorio histórico.*

*Por lo demás, entre los orígenes con contribución importante, Gipuzkoa solo conserva una ligera supremacía entre los alemanes y, más claramente, con diferencias de entre un 10% y un 15% sobre el siguiente receptor, entre el conjunto de países europeos con aportaciones secundarias y entre el conjunto de orígenes no europeos, si bien en ningún caso con la disposición mostrada por el turista francés.*

*Entre el resto de mercados Bizkaia va alcanzando y superando a Gipuzkoa a lo largo de los últimos años, en tanto que Araba muestra una escasa vitalidad al respecto.*



Errepidez iritsitako turistek aukeratutako lurralde historikoak, bizilekuaren arabera 2005
*Territorios Históricos de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia 2005*

| | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 100% | 14,3% | 58,7% | 27,0% |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 100% | 4,8% | 39,8% | 55,4% |
| Alemania / *Alemania* | 100% | 9,9% | 46,1% | 44,0% |
| Italia / *Italia* | 100% | 4,8% | 38,2% | 57,0% |
| Portugal / *Portugal* | 100% | 15,8% | 42,6% | 41,6% |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 100% | 9,4% | 50,2% | 40,4% |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 100% | 3,4% | 55,4% | 41,1% |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Frantziako bisitari gehienak distantzia motz eta ertainekoak dira, batez ere eskualde mailakoak, egun gutxi igarotzen dituzte, ahalik eta azkarren iritsi nahi dute eta errepidez etortzen dira. Eredu horretako turismo-eskaria, batez ere asteburuko hiri-astialdira bideratua, Donostian (hemen batez ere) eta mugako eskualdeetan biltzen da, baita kosta osoan ere Debaraino.

Frantziako turistentzat izan ezik, atzerriko merkatuak Euskadira hurbiltzeari dagokionez, Bizkaiak lehengoratu ditu merkatu horien joerak eta gaur egun Gipuzkoa bezain jomuga erakargarria da. Are gehiago, Erresuma Batukoek eta Italiakoek gehiago jotzen dute Bizkaira; izan ere, bisiten % 60 inguru herrialde horietakoak dira.

Kultura-turismoaren eskaintza ezartzeko testuinguruari dagokionez, aipatutako herrialdeetatik Bilbora etortzeko kostu txikiko zuzeneko aire-lotura gehiago jartzeak zerikusia du Bilbon bakarrik jazotzen den gertakari batekin. Nolanahi ere, Gipuzkoa barruan, hondartza duen hiri-turismoaren garapenaren esparruan, Donostia bera oso jomuga erakargarria da Italiatik datozenentzat eta bereziki, Erresuma Batukoentzat eta Alemaniakoentzat, nahiz eta turismo mota horrek eskatzen duen aire bidezko garraiorik ez izan.

*La mayoritaria visita francesa depende de un modelo de corta y media distancia, más bien de carácter regional, de pocas jornadas, y un acceso rápido posible, que se realiza por carretera. Bajo este modelo, principalmente orientado al ocio de ciudad de fin de semana, Donostia, de manera prominente, y las comarcas fronterizas, pero también la extensión costera hasta Deba, centralizan la demanda turística.*

*Excepto para los franceses, Bizkaia ha ido revirtiendo las tendencias de los mercados extranjeros en su acercamiento a Euskadi, hasta constituirse en un destino prácticamente igualmente atractivo que Gipuzkoa. Incluso lo supera para británicos e italianos, entre los que recoge prácticamente el 60% de las visitas.*

*El crecimiento de las conexiones aéreas de bajo coste directas con esta ciudad desde estos países, en un contexto de asentamiento de una importante oferta de turismo cultural, tiene que ver con un fenómeno que está, no obstante, protagonizado casi exclusivamente por Bilbao. En todo caso, dentro de Gipuzkoa, Donostia individualmente resulta un destino muy atractivo para los originarios de Italia y, especialmente, para británicos y alemanes, en el marco del desarrollo de un turismo de ciudad con playa que cuenta con el hándicap de la carencia de comunicación aérea que este turismo exige.*

Errepidez iritsitako turistek aukeratutako udalerriak, bizilekuaren arabera 2005
*Municipios de destino de los turistas por carretera según sus lugares de residencia 2005*

| | Guztira / *Total* | Araba / *Álava* | Gipuzkoa | Bizkaia |
|---|---|---|---|---|
| Frantzia / *Francia* | 42,4% | 56,0% | 48,0% | 30,6% |
| Erresuma Batua / *Reino Unido* | 7,4% | 3,3% | 5,7% | 10,9% |
| Alemania / *Alemania* | 8,3% | 7,6% | 7,4% | 9,8% |
| Italia / *Italia* | 6,9% | 3,0% | 5,1% | 10,5% |
| Portugal / *Portugal* | 7,8% | 11,4% | 6,4% | 8,6% |
| Europako gainerakoak / *Resto de Europa* | 17,9% | 15,6% | 17,4% | 19,3% |
| Beste herrialde batzuk / *Otros países* | 9,4% | 3,0% | 10,0% | 10,3% |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Errepidez etortzen diren turista atzerritarren mapa geografikoak
## *Mapas geográficos de los turistas extranjeros que entran por carretera*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Arabak aurreko urteetako joerari eutsi dio, gainerako lurraldeetako erakarpen-mailatik oso urrun. Arabaren eskaintzaren gune indartsuetako bat da bidean doazen bidaiariek atseden hartzeko geralekua dela, batez ere Frantziatik eta Portugaletik datozenentzat.

Lurralde horretako gune aipagarri bakarra Gasteiz da, nolanahi ere hiriburu horren erakarpen-maila beste bi hiriburuetakoa baino askoz txikiagoa da. Aisialdi-bisitaldiekin zerikusirik ez duen beste zerbait eskaintzen du, hala nola lan-arloko bisitaldiak, familiakoak edo igarotzeak.

Kostaldeari dagokionez, Gipuzkoako kostaldeko beste edozein herriren gainetik, Zarautz eta Hondarribia dira hondartzara etortzen den udako turismoari bideratutako eskaintza nagusiak atzerritar guztientzat, eta bereziki Bizkaiko kostaldearen gainetik, turismo mota honi dagokionez, Bizkaiko kosta Gipuzkoakoaren atzetik baitago.

Herri horietaz gain, honako hauek dira kostaldeko beste herri aipagarri batzuk: Gipuzkoan, Orio, Zumaia eta Getaria, eta Bizkaian, Mundaka eta Bermeo.

Edozein jatorritako turistek aisiarako hainbat eredu turistiko eta horiekin zerikusia duten herriak aukeratzen dituzte batez ere, hala nola Donostia hiri-turismorako, Bilbo kultura-turismorako edo kostaldea hondartzarekin eta atsedenarekin zerikusia duten ereduetarako. Hala eta guztiz ere, Frantziakoek, Erresuma Batukoek, Alemaniakoek, turista gutxien dakartzaten Europako herrialdekoek edo Europatik kanpoko herrialdeetakoek nahiago dute Donostia; Portugalekoek eta Italiakoek, ordea, nahiago izaten dute Bilbok proposatzen dien eredua. Horretaz gain, gainerako turistekin alderatuta, Portugalekoak nabarmentzen dira kostaldeko turismorako ez dutelako inolako interesik erakusten.

*Araba se mantiene, siguiendo las tendencias de años anteriores, muy lejos de la capacidad de atracción de los otros territorios. Uno de los puntos fuertes en su oferta constituye la absorción de las paradas de descanso de viajeros en tránsito, principalmente aquellos con origen francés y portugués.*

*El único punto destacable en este territorio es Vitoria-Gasteiz, con una capacidad de atracción que dista mucho de la mostrada por las otras dos capitales. Presenta una demanda más bien ajena a modelos de visita de ocio, como visitas laborales, familiares o tránsitos.*

*En la costa, Zarautz y Hondarribia se muestran como punta de lanza de las ofertas orientadas al turismo veraniego de playa, para el conjunto de orígenes, por encima de cualquier otra población de la costa guipuzcoana y, especialmente, de la vizcaína, claramente a la zaga frente a la primera para este turismo.*

*Además de estos, otros puntos de interés en la costa son Orio, Zumaia y Getaria en Gipuzkoa, y Mundaka y Bermeo en Bizkaia.*

*Cualquier origen muestra disposición por diferentes modelos turísticos de ocio y las localidades preferentemente asociadas a ellos, Donostia para el turismo de ciudad, Bilbao para el cultural, o la costa para modelos asociados a la playa y el descanso. Aún así, franceses, británicos, alemanes, los originarios de países europeos con menor aporte o los no europeos se decantan más por Donostia, mientras que portugueses e italianos lo hacen más por el modelo propuesto por Bilbao. Además, frente al resto, los portugueses destacan por una absoluta carencia de interés por el turismo costero.*

## Bidaiaren arrazoia
## *Motivo del viaje*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. 2003-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución anual 2003-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

2005. urtean atzerriko turismoak Euskadin izandako igoera nabarmena batez ere aisiagatiko egonaldiek eragin dute. Aisia dela-eta turista kopurua asko hazi da —horri esker azken urte hauetako bisita kopuru altuenak lortu dira—, baina negozioek eragindako bisitak pixka bat jaitsi dira eta familia-arloko bisitak oraindik gehiago. Horren ondorioz, aisia sendotu da bisita turistikoen eragile nagusi gisa.

*El fuerte incremento registrado por el turismo extranjero en Euskadi en 2005 se debe fundamentalmente a las estancias por ocio. A este notable aumento de turistas por motivos de ocio, con el que se logran las cifras de visita más elevadas de los últimos años, se unen un leve descenso en las visitas motivadas por negocio y otro más acusado de las visitas de índole familiar. Como consecuencia, el ocio se consolida como principal motivador de visitas turísticas.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera. Hilen arteko bilakaera 2003-2005
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje. Evolución mensual 2003-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren arabera.
Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2003 -2005
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje.*
*Comparación Estado-C.A. País Vasco 2003-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gainerako arrazoien ondorioz egindako bidaiak jaitsi egin dira 2005. urtean. Jaitsiera hori nabarmena da arrazoi pertsonalek (osasuna, familia) eragindako bisiten artean; izan ere, aurreko urtean baino ia 20.000 bidaiari gutxiago izan dira. Jaitsiera hori leunagoa da gainerako arrazoien kasuan (lan-arlokoak, bestelakoak).

Atzerriko turismoaren urtarokotasuna aisiagatiko turismo gehienak batez ere hainbat urtarotan bidaiatzen duelako gertatzen da neurri handi batean. Arrazoi horiek direla-eta, bisita asko udan egiten dira, eta bereziki uztailean eta abuztuan.

Hain zuzen ere, 2005. urteko berezitasun handiena da aisia-turismoa nabarmen hazi dela hilabete horietan, bereziki abuztuan. Gaur egun hilabete hori nabarmen bereizten da aurreko eta ondorengo hilabeteetatik.

Arrazoi pertsonalek edo familiakoek eragindako turismoa egonkortzen ari da, baina udan gora egin du, kasu honetan uztailean abuztuan baino gehiago igo da.

Negozioek eragindako turismoa ez da aldatzen urtaroen arabera. Aitzitik, 2005. urtean hazi egin da hilero-hilero modu egonkorrean.

*Los viajes por el resto de motivos manifiestan en 2005 un descenso. Éste es particularmente importante entre las visitas por motivos personales (salud, familiares), con casi 20.000 viajeros menos que en el año anterior, y más bien tenue para el resto (laborales, otros).*

*La estacionalidad del turismo extranjero viene determinada en gran medida por el carácter manifiestamente estacional del mayoritario turismo por ocio. Estos motivos generan una elevada proporción de visitas centradas en verano, y particularmente en julio y agosto.*

*Precisamente, la mayor particularidad de 2005 reside en que el fuerte incremento registrado por el turismo de ocio se concentra en estos meses, y particularmente en el mes de agosto, que se diferencia de los meses anterior y posterior ahora de una manera muy significativa.*

*El turismo por razones personales o familiares también muestra una cierta tendencia a la estacionalidad, con un fuerte pico veraniego, más centrado en este caso en julio que en agosto.*

*El turismo por negocio no presenta variaciones estacionales. Al contrario, durante 2005 manifiesta un crecimiento, mes a mes, constante.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren eta garraiobidearen arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y modo de transporte. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria*/Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskadiko eta Estatuko turismo-eskariaren egiturak antzeko eredu orokorrari jarraitzen dio; horrela bada, aisiagatiko bisitak nagusitzen dira batez ere, ondoren, distantzia handiagoz, negozioak eragindako bisitak daude eta hirugarren lekuan, familia- edo osasun-arrazoiek eragindakoak daude. Bi kasuetan, bestelako arrazoiek pisu txikiagoa dute.

Hala eta guztiz ere, eskarien antzekotasun hori itxurazkoa da soilik eta joera horien oinarrizko alderdiei buruzkoa. Sakon aztertuz gero, ikus daiteke Estatuko turismo-eskari guztia aisia-ereduetakoa dela. Izan ere, joera horren ondorioz, Estatuko zenbait erkidegotako oporraldietako turismo-industria goieneko mailan dago, batez ere eguzkiaren eta hondartzaren ereduak oinarri hartzen dituen turismoa. Hain zuzen ere, horrelako ereduak Euskadin oso gutxi daude eta mugatuak dira.

Argi dago aisiari lotutako Euskadiko eredu turistikoek ez dutela Mediterraneoko eguzkiaren eta hondartzaren industriak duen garapen-maila bera, hangoa jendetsua baita; Euskadik batez ere hiri-turismoa eta kultura-turismoa erakartzen ditu, naturari lotutako turismo pixka bat eta negozioen jarduerari atxikitako turismo tradizionala.

Arrazoien arabera, bidaiaren egitura oso desberdina da errepidez bidaiatzen dutenentzat eta hegazkinez egiten dutenentzat. Alde nagusia aisiarako joerak dakar; errepidez egiten diren bisitaldietan oso nabarmena da alde hori, airez egiten direnetan, aldiz, zertxobait altuagoa da.

*La estructura de la demanda turística de Euskadi y del estado sigue un patrón general similar, fundamentado en el predominio claro de las visitas por ocio, seguidas a distancia por las visitas de negocio y, en tercer lugar, por las provocadas por motivos familiares o de salud. En ambos casos, otros motivos tienen un peso minoritario.*

*Con todo, esta similitud de las demandas solo lo es aparente y referida a los aspectos más básicos de estas tendencias. Una mirada a fondo permite observar que la demanda turística en el estado se manifiesta absolutamente volcada hacia los modelos de ocio. De hecho, esta extrema orientación es expresión de un gran auge de la industria turística vacacional en algunas de las comunidades que lo componen, fundamentado en modelos de sol y playa poco presentes y de potencial limitado en Euskadi.*

*Lógicamente, los modelos turísticos ligados al ocio en Euskadi no permiten el mismo nivel de desarrollo, tan masivo, como el de la industria de sol y playa mediterránea; Euskadi atrae principalmente turismo urbano y cultural, algo de turismo de naturaleza, así como el tradicional ligado a la actividad de negocios.*

*La estructura de viaje, de acuerdo a los motivos, para los viajeros por carretera y por aeropuerto es sustancialmente diferente. La diferencia principal viene dada por la orientación hacia el ocio, muy marcada entre las visitas realizadas por carretera y solo tenuemente mayoritaria entre las aéreas.*

EAE aukeratu duten turistak, bidaiatzeko arrazoiaren eta bizilekuaren arabera 2005
*Turistas con destino en el País Vasco por motivo del viaje y lugar de residencia 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Aisiaren ondoren, errepidez egiten diren bisiten arrazoi nagusia arrazoi pertsonalek eta familia-arrazoiek eragindako bisita da. Egonaldi horiek negozioek eragindakoak baino askoz ugariagoak dira, eta mugaz gaindiko harreman-maila garrantzitsua dela erakusten dute. Hala eta guztiz ere, 2005. urtean murriztu egin dira.

Hegazkina erabiliz egindako bisiten artean bi ezaugarri aipatu behar dira. Alde batetik, arrazoi gehienak aisian edo negozioan biltzen dira; arrazoi pertsonalek eragindakoak, berriz, oso gutxi daude. Beste alde batetik, aisiak eragindako bisitak gero eta gehiago sendotzen ari dira, negozioak eragindakoak ez, ordea.

Euskal Autonomia Erkidegoko turista atzerritar gehienak Frantziakoak dira, eta azpimarratzekoa da turista horien bisitaldiak oporraldiak eta aisiak eragindakoak direla batez ere; horretaz gain, arrazoi pertsonalek edo familia-arrazoiek eragindako bisitak negozioek eragindakoak baino gehiago dira. Edozein jatorritako turisten bisita ugari aisiak eragindakoak dira; nolanahi ere, Erresuma Batukoen, Alemaniakoen, Italiakoen eta batez ere Portugalekoen bisiten nagusitasuna batez bestekoaren azpitik dago.

*Después del ocio, el motivo más frecuente en las visitas por carretera es la visita por motivos personales y familiares. Estas estancias son mucho más abundantes que las de negocios, y reflejo del importante nivel de relaciones transfronterizas. Aún así, se han visto reducidas a lo largo de 2005.*

*Entre las visitas realizadas por aeropuerto destacan dos rasgos. Por un lado la concentración de los motivos en el ocio o en el negocio, con muy pocos por motivos personales. Por otro lado, el progresivo afianzamiento de las visitas realizadas por ocio frente a las de negocio.*

*Francia, principal suministrador de turistas extranjeros al País Vasco, destaca tanto por el predominio de visitas vacacionales y de ocio entre sus turistas como por el predominio de los motivos personales y familiares sobre los negocios. El ocio determina buena parte de las visitas para todo origen, si bien su primacía entre británicos, alemanes, italianos y, sobre todo, portugueses es inferior a la media.*

## Egonaldiaren iraupena

## *Duración de la estancia*

Euskal Autonomia Erkidegoa jomuga duten atzerritarren turismo-eskariaren ezaugarria da egonaldiak oso motzak izaten direla, bi gauera bitartekoak, asteburuko bisitaldietarako eta eremu hurbil samarretatik egindako hiri-turismorako oso egokiak. Ia bisiten erdiek iraupen hori dute, bisitarien beste % 34aren egonaldiak, ordea, ez dira astebetetik gorako iraupenekoak izaten.

Azken egonaldi horiek lortu dute goieneko maila azken bi urte hauetan; bai bisitaldi laburrak izan, bai astebeteko iraupena gainditzen duten egonaldiak izan.

Egonaldi oso laburrak egiteko joera nagusi horrek argi eta garbi bereizten ditu Euskadiren eskaeraren egitura eta Estatu osoarena; Estatuko egonaldi ohikoenak 3 egunetik 7 egunera bitartekoak izaten baitira, edota bi astekoak.

*La demanda turística extranjera en el País vasco se caracteriza por estancias muy cortas, de hasta dos noches, muy propias para visitas de fin de semana para turismo de ciudad realizado desde ámbitos más bien cercanos. Casi la mitad de las visitas tiene esta duración, en tanto que otro 34% más no supera la semana.*

*Estas últimas son las que mayor auge han tenido en los dos últimos años, si bien tanto a costa de las visitas cortas como de las que superan la semana de duración.*

*Esta marcada inclinación hacia las estancias muy cortas diferencia ampliamente la estructura de la demanda en Euskadi frente al conjunto del estado, muy orientado a estancias de entre 3 y 7 días, las más habituales, o incluso de hasta dos semanas.*

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2002 -2005
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia. Comparación Estado-C.A. País Vasco 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraiobidearen arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por duración de la estancia y modo de transporte. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Gaualdi-ereduak oso desberdinak dira Euskadira etortzeko erabili den bidearen arabera, hau da, airez edo errepidez etorri diren kontuan hartuta. Airez etorri diren bisitariek batez besteko turistek baino egonaldi luzeagoak egin dituzte, horrek esan nahi du errepidez etortzen diren turisten eskaera handiagoa dela. Aitzitik, hegazkinez iritsi diren ohiko bisiten egonaldiek 3 gautik 7 gaura bitarteko iraupena dute (% 45), eta astebetetik bi astera bitarteko egonaldiak ere ugariak dira.

Ildo horretatik, aire bidezko bisiten eredua Estatuko eredu orokorraren antzekoa da, errepidezko bisitena ez, ordea; azken horien turismo-harremanak herrialdekoak edota eskualdekoak baitira batez ere. Horretaz gain, 3 gautik 7 gaura bitarteko egonaldiak nabarmen igo dira 2005. urtean, baita aisiak eragindako aire bidezko bisitak ere.

Horretaz gain, Euskadiko turismo-eskariaren berezko ezaugarria da ez dagoela egonaldi ertaineko eta luzeko opor-turismorik, ez bisitak hegazkinez etortzen badira, ezta autoz etortzen badira ere; horrek esan nahi du ezin direla garatu eguzkipean eta hondartzan egonik atseden hartzean oinarritzen diren ereduak.

*Los patrones de pernoctación difieren ampliamente en función del acceso, aéreo o por carretera. La entrada aérea supone la realización de estancias más largas que la media, que no hace sino reflejar la demanda del turista que accede por carretera, mayoritario. Frente a estos, las visitas más habituales entre los procedentes por avión son aquellas de una duración de entre 3 y 7 noches (45%), con picos también importantes para aquellas de duración de entre una y dos semanas.*

*En este sentido, la visita aérea tiende a un patrón más parecido al general del estado que la de carretera, muy marcada por la regionalidad, e incluso comarcalidad, de buena parte de estas relaciones turísticas. Además, las estancias de entre 3 y 7 noches son las que han registrado un crecimiento más importante durante 2005, paralelamente al aumento de las visitas aéreas por ocio.*

*La demanda turística en Euskadi presenta además, como rasgo propio, la ausencia de un turismo vacacional de media y larga estancia, tanto si las visitas utilizan el avión como el coche, paralela a la imposibilidad de desarrollo de modelos fundamentados en el descanso de sol y playa.*

## Batez besteko egonaldia

## *Estancia media*

Bisitariaren jatorriaren arabera, batez besteko egonaldiak desberdinak dira. Portugalekoek —hango turisten artetik pasadizoko kopuruaren arabera— eta Frantziakoek —asteburuko turismoa egiten dutelako— egiten dituzte batez besteko egonaldi laburrenak (4 egunekoak gutxi gora behera). Kontrako kasuan daude Europakoak ez diren herrialdeetatik datozenak, oso bestelako turismo-aukera egiten baitute, hau da, gainerako turistekin alderatuta, egonaldi oso luzeak egiten dituzte.

*Las estancias medias difieren mucho en función del origen del visitante. Portugal, en función del alto número de transeúntes entre sus turistas, y Francia, por la dedicación al turismo de fin de semana, son los que proporcionan estancias medias menores, de poco más de 4 jornadas. En el polo contrario, los procedentes de países no europeos muestran una disposición turística muy diferenciada, con estancias muy largas en relación al resto.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera 2005
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Egonaldiaren egitura Estatuarenaren oso antzekoa da, nahiz eta jatorriaren araberako batez bestekoaren gainean antzeko aldaerak egon. Hala eta guztiz ere, Euskadiko batez besteko egonaldia zertxobait txikiagoa da herrialde guztientzat, Europakoak ez diren herrialdeentzat salbu.

Estatuko gainerako herrietan gertatzen den bezala, emaitza garrantzitsuenak dituzten herrialdeen joeren artean aipatu behar da Alemaniakoen bisiten batez besteko iraupena Europako beste herrialde batzuetatik etortzen diren bisitariena baino askoz luzeagoa dela.

*La estructura de la estancia por origen es muy similar a la del estado, en tanto que muestra variaciones sobre la media similares por origen. En cualquier caso, la estancia media es en Euskadi algo menor para todos ellos, con la salvedad de los países no europeos.*

*Al igual que sucede en el resto del estado, destaca, entre las tendencias de los países con aportes más significativos, la duración media de las visitas de los alemanes, claramente más largas que las que presentan los procedentes de otros países europeos.*

Oro har, hegazkinez etortzen diren turisten egonaldiak errepidez iristen direnenak baino askoz luzeagoak dira. Italiakoen eta Erresuma Batukoen iraupenak soilik dira antzekoak; Portugalekoenak, Frantziakoenak eta bereziki Alemaniakoenak, inguruko herrialdeetako bisitarien egonaldiekin alderatzen baditugu, ikusten dugu aldeak oso nabarmenak direla.

Ezin da aipatu gabe utzi egonaldiei dagokienez, eta aukeratu duten bidea kontuan hartuta, Europakoak ez diren herrialdeetako turisten artean alde handiak daudela. Aukeratutako bidea errepidea denean, jomuga bat baino gehiago izan ohi dute eta hainbat egun Euskaditik kanpo ematen dituzte.

*Generalmente, las estancias de aquellos que acceden por avión son significativamente más largas que la de aquellos que acceden por carretera. Tan solo entre italianos y británicos las duraciones vienen a ser similares, en tanto que entre portugueses, franceses y especialmente, alemanes, entre los países del entorno, las diferencias son manifiestas.*

*Es de destacar la gran diferencia que se da entre los procedentes de países no europeos en sus estancias en función de su vía de acceso. Cuando es la carretera, el destino tiende a ser múltiple, con etapas que se desarrollan fuera de Euskadi.*

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2005
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media y lugar de residencia. Comparación Estado-C.A. País Vasco 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, batez besteko egonaldiaren, bizilekuaren eta garraiobidearen arabera 2005
*Turistas con destino en el País Vasco por estancia media, lugar de residencia y modo de transporte 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Ostatu-mota

## *Tipo de alojamiento*

Euskadira etortzen diren atzerriko turista gehienek hotelak aukeratzen dituzte ostatu hartzeko eta aukera hori urtez urte igotzen ari da, 2001. urtetik aurrera % 30 bisita gehiago izan dira.

Euskadiko turismoaren beste ezaugarri bat da doako etxebizitzak, ostatuek, kanpinak edo landetxeek garrantzi handia dutela. Ezaugarri horrek bereizten du modu nabarmenean errepidez etortzen direnen eta hegazkinez etortzen direnen eskaria; izan ere, azken horiek hotela kontratatzen dute gehienetan edo doako ostatuak daudela aprobetxatzen dute.

Hotela kontratatzen duten atzerriko turistei dagokienez, Euskadi poliki-poliki ari da hurbiltzen Estatuko proportziora. 2005. urtean Estatuaren kopurutik 5 puntu beherago dago, 2002. urtean, ordea, alde hori 15 puntukoa zen. Bi turismo-eskarien artean dagoen alde nabarmena honako arrazoi hauek eragiten dute: Euskadin oso etxebizitza gutxi alokatzen direlako eta Euskadin garrantzi handia duelako kanpinean edo landetxeetan ostatu hartzeak.

Azken urte hauetan ikusi da bi eskarietako ostatu hartzeko egiturekiko hurbilpena dagoela.

Edozein jatorritako turistek batez ere hotela aukeratzen dute ostatu hartzeko, esate baterako Alemaniako turisten % 50ek ostatu mota hori aukeratzen du —horietatik askok eta askok doako etxebizitza aprobetxatzen dute— baita Italiako eta Europatik kanpoko herrialdeetatik datozen turisten % 66k baino gehiagok ere.

*El alojamiento hotelero no solo es el preferido entre el turista extranjero en Euskadi, sino que se encuentra en franco auge anual, con un 30% más de visitas desde 2001.*

*Otros rasgos del turismo vasco son la elevada importancia tanto de la vivienda de carácter gratuito como de alojamientos como el camping o las casas rurales. Este es un aspecto que diferencia altamente la demanda entre los que acceden por carretera y por avión, dado que estos se centran mucho en la contratación de hotel o aprovechan la existencia de alojamiento gratuito.*

*Euskadi se acerca paulatinamente a la proporción de contratación de hotel por parte de los turistas extranjeros existente en el estado. En 2005 se sitúa solo 5 puntos por debajo, cuando en 2002 esta diferencia alcanzaba casi los 15. La gran diferencia entre ambas demandas turísticas se da en la escasez del alquiler de vivienda en Euskadi, así como en la importancia aquí de alojamientos como el camping o las casas rurales.*

*En los últimos años se registra un acercamiento de las estructuras de alojamiento de ambas demandas.*

*El hotel es alojamiento dominante para los turistas de todo origen, con porcentajes de absorción de turistas que van de un 50% entre los alemanes, que acceden también en buena medida aprovechando la plataforma de viviendas gratuitas, hasta algo más de un 66% de italianos y de los que proceden de países extraeuropeos.*

EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren eta garraiobidearen arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y modo de transporte. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren arabera.
Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko konparazioa 2002-2005
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento.*
*Comparación Estado-C.A. País Vasco 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu duten turistak, ostatu motaren eta bizilekuaren arabera 2005
*Turistas con destino en el País Vasco por tipo de alojamiento y lugar de residencia 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Frantziako turisten kopurua (Euskadira etortzen diren atzerriko turismoaren zati nagusi dira) hotela erabiltzen duten turisten kopuruaren —jatorria kontuan hartuta— bikoitza da. Baina Euskadira etortzen diren turistek aukeratzen dituzten turismo-ereduak (udako asteburuko aisiabisita da garrantzitsuena) kontuan hartzen baditugu, beste edozein eredu baino gehiago aukeratzen dituzte beste alojamendu batzuk (kanpina, landetxea eta abar); horrela bada, erabiltzaileen % 54k aukeratzen du eredu hori, eta Euskadira etortzen diren atzerriko turista guztiek duten garrantzia baino askoz pisu handiagoa dute.

Beste ostatuek garrantzi handia dute Frantziako turistentzat (% 22), Italiakoentzat, Portugalekoentzat, Alemaniakoentzat eta Europako herrialdeetatik datozen guztientzat (Euskadin bigarren mailako garrantzia dute), ez ordea, Britainia Handikoentzat edo Europakoak ez diren herrialdeetatik datozenentzat.

Alokairu bidezko ostatua bigarren mailakoa da Euskadiko turismoaren ostatuaren egituran. Erabilera urri horren barruan, Erresuma Batuko turistek eta Alemaniakoek aukeratzen dute batez ere ostatu mota hori; hala eta guztiz ere, Frantziako turistak dira nagusi, nahiz eta beste edozein alojamendurekin alderatuta ateratzen diren aldeak oso txikiak diren.

*Los franceses, que componen una parte esencial del turismo extranjero en Euskadi, doblan incluso a los siguientes usuarios hoteleros por origen (los países extraeuropeos). Pero, dado los modelos turísticos con los que acceden, entre los que la visita de ocio de fin de semana veraniega ocupa un papel básico, se orientan también en mayor medida que ningún otro hacia los otros alojamientos (camping, casa rural…), hasta suponer casi un 54% de sus usuarios, por encima del peso con el que cuentan entre el total de turismo extranjero en Euskadi.*

*Los otros alojamientos tienen gran relevancia, además de para franceses (22%), para italianos, portugueses, alemanes y para el conjunto de los procedentes de países europeos de peso secundario en Euskadi, pero no para británicos o procedentes de países no europeos.*

*El alojamiento en alquiler ocupa una posición muy secundaria en la estructura de alojamiento turístico vasca. Dentro de este escaso uso, británicos y alemanes son los que mayor disposición muestran a este alojamiento, si bien es Francia el que aporta el volumen más importante, aunque las diferencias son irrelevantes en comparación con las que se dan para cualquier otro alojamiento.*



# EAE aukeratu duten txangozaleak
## *Excursionistas con destino en el País Vasco*

### Garraiobidea
### *Modo de transporte*

Turismoarekin alderatuta, txangozaletasunak garrantzi handia du, Euskadira etorri diren atzerriko bisitek duten egitura-ezaugarri nagusia baita. Izan ere, 10 sarreratik 9 txangozaleak dira.

2005. urtean, txangozaleen kopurua 7.900.000 bisitetatik gorakoa izan da; izan ere, urte batetik bestera modu nabarmenean igo da. 2000. urtetik aurrera gutxi gorabehera 2 milioi bisita gehiago izan dira. 2004. urteari dagokionez, igoera hori % 9koa izan da.

*El peso del excursionismo sobre el turismo es el rasgo estructural más acusado de las visitas extranjeras a Euskadi. Suponen, de hecho, 9 de cada 10 entradas.*

*Los volúmenes excursionistas superan en 2005 las 7.900.000 visitas, tras un constante y fuerte incremento interanual que se traduce en un aumento de más de cerca de 2 millones de visitas desde 2000. Respecto a 2004 este incremento ha sido de un 9%.*

EAE aukeratu duten txangozaleak, garraiobidearen arabera. Hilen arteko bilakaera 2003-2005
*Excursionistas con destino en el País Vasco por modo de transporte. Evolución mensual 2003-2005*

| | | Guztira / *Total* | Sarbidea / *Vía de acceso* | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Errepidea / *Carretera* | Aireportua / *Aeropuerto* |
| 2003 | **Guztira/*Total*** | 6.958.499 | 6.953.247 | 5.252 |
| | Urtarrila/*Enero* | 449.166 | 449.100 | 66 |
| | Otsaila/*Febrero* | 411.865 | 411.734 | 131 |
| | Martxoa/*Marzo* | 510.994 | 510.129 | 865 |
| | Apirila/*Abril* | 529.652 | 529.216 | 436 |
| | Maiatza/*Mayo* | 573.945 | 573.806 | 139 |
| | Ekaina/*Junio* | 447.711 | 447.217 | 494 |
| | Uztaila/*Julio* | 713.641 | 713.269 | 372 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.036.994 | 1.036.090 | 904 |
| | Iraila/*Septiembre* | 592.930 | 592.076 | 854 |
| | Urria/*Octubre* | 534.479 | 534.031 | 448 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 571.974 | 571.674 | 300 |
| | Abendua/*Diciembre* | 585.148 | 584.905 | 243 |
| 2004 | **Guztira/*Total*** | 7.211.909 | 7.202.699 | 9.210 |
| | Urtarrila/*Enero* | 472.245 | 472.029 | 216 |
| | Otsaila/*Febrero* | 457.924 | 457.432 | 492 |
| | Martxoa/*Marzo* | 473.520 | 472.879 | 641 |
| | Apirila/*Abril* | 612.953 | 611.856 | 1.097 |
| | Maiatza/*Mayo* | 574.099 | 573.733 | 366 |
| | Ekaina/*Junio* | 628.523 | 627.297 | 1.226 |
| | Uztaila/*Julio* | 683.928 | 683.163 | 765 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.004.385 | 1.002.248 | 2.137 |
| | Iraila/*Septiembre* | 563.480 | 562.696 | 784 |
| | Urria/*Octubre* | 617.993 | 617.165 | 828 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 528.794 | 528.469 | 325 |
| | Abendua/*Diciembre* | 594.065 | 593.732 | 333 |
| 2005 | **Guztira/*Total*** | 7.901.937 | 7.893.200 | 8.737 |
| | Urtarrila/*Enero* | 546.292 | 545.973 | 319 |
| | Otsaila/*Febrero* | 494.319 | 493.853 | 466 |
| | Martxoa/*Marzo* | 578.557 | 577.727 | 830 |
| | Apirila/*Abril* | 609.414 | 608.190 | 1.224 |
| | Maiatza/*Mayo* | 727.431 | 726.991 | 440 |
| | Ekaina/*Junio* | 690.355 | 689.581 | 774 |
| | Uztaila/*Julio* | 778.829 | 777.970 | 859 |
| | Abuztua/*Agosto* | 1.040.732 | 1.038.822 | 1.910 |
| | Iraila/*Septiembre* | 652.928 | 652.098 | 830 |
| | Urria/*Octubre* | 654.047 | 653.691 | 356 |
| | Azaroa/*Noviembre* | 512.528 | 512.211 | 317 |
| | Abendua/*Diciembre* | 616.506 | 616.094 | 412 |

**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aireportu bidez igarotzen diren hainbat turista (kopurua txikia da) kenduta, esan daiteke txangozale kopurua handia dela ia eskualde-eremuko harreman-sarea dagoelako. Sare horretan mugatik hurbil dauden egoitza-aldeak sartzen dira eta egoitza-alde horiek segidako eskualde-eremu gisa jarduten dute gero eta gehiago.

Trukatzeko sare horri eta Frantziako turisten bisitei dagokienez, erosketek eta aisiak garrantzi handia dute, eta horren ondorioz esan daiteke bisita horiek urtaroen araberakoak direla; hala eta guztiz ere, gaua ematen duten bisiten urtarokotasuna askoz nabarmenagoa da. Hain zuzen ere, udako hilabeteetan, abuztuan batez ere, bisitek gora egiten dute, baina udaberritik aurrera ere bisita ugari izaten dira. Neguko hilabeteetan hau da, urtarrilean, otsailean eta martxoan, baita azaroan ere izaten da bisitari gutxien.

Aurreko urteetan ez bezala, 2005. urtean zertxobait gora egin dute urtaroen araberako joerek; izan ere, txangozaleak etortzeko egokiak diren hilabeteen aukera irekitzen ari baita. Horri dagokionez, esan behar da uda aurreko hilabeteetan, hots, maiatzean eta ekainean gora egin duela, baita irailean eta urrian ere, nahiz eta azken bi hilabete horietan igoera txikiagoa den.

*A salvo de ciertos volúmenes de tránsito aeroportuario, escasos, puede afirmarse que la elevada cifra excursionista, responde a una red de relaciones de ámbito casi comarcal, en la que se ven involucradas las áreas residenciales cercanas a la frontera, que se van comportando cada vez más como un ámbito comarcal continuo.*

*Las compras y el ocio tiene una parte importante en esta red de intercambio y visita de público francés, y ello da un carácter estacional muy marcado a estas visitas, aunque no tanto como sucede con las visitas con pernoctación. Precisamente, las visitas se disparan en los meses de verano, en agosto principalmente, pero mantienen un nivel elevado desde primavera. Los peores meses son los invernales: enero, febrero y marzo, así como noviembre.*

*Frente a años anteriores, en 2005 se atenúan en alguna medida las tendencias estacionales, en tanto en que se va abriendo el abanico de meses propicios para la llegada de visitantes excursionistas. A este respecto destaca el aumento registrado en los meses preveraniegos, mayo y junio, pero también, en menor medida, en septiembre y octubre.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Aireportuz etortzen diren bisitak eta errepidez etortzen direnak alderatzen baditugu, lehenengoak oso gutxi dira. Horretaz gain, hainbat urtetan ehunekoak nabarmen igo badira ere, azken urte honetan atzera egin da; hala eta guztiz ere, igoera horrek ez du aldatzen errepidez etortzen diren turisten kopuruak duen garrantzia.

*La vía aeroportuaria resulta insignificante en términos de visitas excursionistas frente a la carretera. Durante el último año, además, registra cierto retroceso, tras unos años de incrementos porcentuales importantes que no llegan a cambiar la relación de peso con el acceso por carretera.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por lugar de residencia. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

## Bisiten arrazoiak eta maiztasuna

## *Motivos y frecuencias de las visitas*

Txangozaleek honako arrazoi hauengatik egiten dituzte bisitak: erosketak egitera etortzen direlako, batez ere, eta aisia-bisitak direlako. Azken urte hauetan bi arrazoi horiek alderantzizko garapena izan dute bisita-sortzaile gisa. 2002. urtean, erosketek 2 milioi eta erdi bisita baino gehiago eragin zituzten, 2005. urtean, ordea, 4 milioi baino gehiago izan ziren, eta urte batetik bestera asko igo ziren. Aisia lehenengo eragile zuten bisitak poliki-poliki, pixka bat jaitsi ziren; izan ere, 600.000 bisita gutxiago egin ziren, eta azkenik, erosketek eragindako bisiten erdia baino gutxiago dira, mota honetako 2.200.000 bisita baino zertxobait gutxiago izan dira.

*La realización de compras, principalmente, y las visitas por ocio explican en primer término la realización de las visitas excursionistas. Ambos motivos han tenido un desarrollo inverso en los últimos años como generadores de visitas. Mientras que las compras han pasado de generar algo más de 2 millones y medio de visitas en 2002 a más de 4 millones y medio en 2005, con unos muy acusados incrementos interanuales, las visitas con el ocio como primer motivador han registrado un paulatino, aunque suave, decremento, para perder casi 600.000 visitas, y para finalmente constituirse en menos de la mitad de las visitas por compras, con algo menos de 2.200.000 visitas de este orden.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Erosketek nahiz aisiak urtaroen araberako eskaria sortzen dute; izan ere, aurreko hilabeteekin alderatuta, maiatzetik aurrera nabarmen egiten du gora, abuztuan lortzen du goreneko maila, eta berriz ere udazkenean behera egiten du.

Erosketei dagokienez, gainera, bisitek berriz ere gora egin dute. Bisita horiek Eguberrietan egiten dira.

Negozioak eragindako bisitak modu erregularrean banatzen dira urtean zehar, eta udan pixka bat behera egiten dute.

*Tanto las compras como el ocio generan una demanda marcadamente estacional, con desarrollos importantes a partir de mayo con respecto a los meses anteriores, un máximo muy acusado en agosto, y una reducción de los volúmenes de nuevo a lo largo del otoño.*

*En el caso de las compras, además, se genera un nuevo pico de visitas asociado a las navidades.*

*Las visitas de negocio se reparten de manera más bien regular a lo largo del año, con cierto declive a lo largo el verano.*

EAE aukeratu duten txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. Hilen arteko bilakaera 2005
*Excursionistas con destino en el País Vasco por motivo de la visita. Evolución mensual 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskal Autonomia Erkidegora txangozaleek egiten dituzten bisitek egunerokotasun handia dute eta urtetik urtera areagotzen ari da egunerokotasun hori.

Bisitarien % 20 (asko dira) egunero etortzen da, % 22, aldiz, gutxienez astean behin etortzen da. Eta beste % 20 hilabetean behin gutxienez.

Noizbehinkako bisitak garrantzia galtzen ari dira poliki-poliki eta behin eta berriz etortzeko hainbat mailek ordeztu dituzte.

*Las visitas excursionistas al País Vasco revelan un fuerte componente de cotidianidad que va, además, acusándose a lo largo de los años.*

*Un significativo 20% acude todos los días, mientras que un 22% más lo hace al menos una vez por semana. Y otro 20% al menos una vez por mes.*

*Las visitas esporádicas pierden peso paulatinamente, siendo sustituidas por distintos niveles de reiteración.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren maiztasunaren arabera. 2002-2005 urteetako bilakaera
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita. Evolución anual 2002-2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Harreman handia dago bisita eragin duten arrazoien eta bisita egiten den maiztasunaren artean.

Lanaren, ikasketen eta familia-bisiten ondorioz maiztasuna oso handia da, bisitarien % 65ek egunero zeharkatzen du muga. Neurri handi batean, etxebizitzaren merkatuarekiko mugak duen porositateak eragiten du hori.

Erosketek eta aisiak (bisita-eragile nagusiak) era askotako maiztasun-banaketa eragiten dute.

*Existe una intensa relación entre los motivos de la visita y la frecuencia con la que ésta se efectúa.*

*Trabajo, estudios y visita familiar generan unas frecuencias muy elevadas, con más del 65% de los visitantes cruzando la frontera todos los días. Es consecuencia, en buena medida, de la porosidad de la frontera al respecto del mercado de la vivienda.*

*Compras y ocio, principales generadores de visitas, originan una distribución de frecuencias muy variada.*

EAE aukeratu eta errepidez iritsi diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta maiztasunaren arabera 2005
*Excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita y frecuencia de la visita 2005*




**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Errepidez bidaiatzen duten txangozaleek aukeratutako lekua. 2005
*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera 2005*







**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.




Lanak edo familia-arrazoiek eragindako mailetara iristen ez badira ere, bisita horiek behin eta berriz egiten dira. Erosketak direla-eta, esate baterako, hilabetean behin gutxienez etortzen diren bisitariak % 63 dira, aisiak eragindа etortzen direnak, aldiz, % 47 dira, horiek ere ugari samarrak.

Erosketak egiteak nolabaiteko jarraitutasuna eragiten du; bisita aisiak eragindakoa bada, ordea, bi motatakoa izan daiteke: edo oso errepikakorra, edo denboraldi luze samarretan ez da bisitarik egiten, batzuetan urtean behin bisita bakar bat egiten da, edo gutxiago.

Erlijio motako bisitak asteko bisitaldiak edo intereseko gertakari jakinek eragiten dituzte, osasun-tratamenduek, ordea, harreman estua eragiten dute, egunerokoa, asterokoa, edo hilerokoa, azken hori askoz gutxiagotan gertatzen bada ere.

Txangozaletasuna herrialde mailakoa baino gehiago eskualde mailakoa da eta mugatik hurbil-hurbil dauden udalerriei gutxi eragiten die, edo Donostialderaino hedatzen da. Irunek bakarrik biltzen du txangozaleen bisiten 2/3 baino gehiago, gainerako bisita gehienak, ordea, Donostian eta Hondarribian biltzen dira.

Eskualde mugakideetatik at, hainbat arrazoi direla-eta, Bilbok bisita kopuru handia biltzen du —ia 720.00 bisita—, nahiz eta ehunekoen arabera kopuru hori txikia izan: % 1 baino gutxiago. Aisia-turismoaren kasuan, Bilbok aisia-txangozaleen % 2,2 erakartzen du.

*Sin llegar a los niveles de las visitas por trabajo o de orden familiar, también son reiterativas. Por compras, por ejemplo, el porcentaje de los que acuden al menos una vez al mes alcanza el 63%, porcentaje que alcanza a un también considerable 47% de los que acuden por ocio.*

*Las realización de compras sugiere una cierta constancia en la visita, mientras que si es por ocio tiende a ser o bien muy reiterativo o bien a espaciarse en periodos más bien largos, con realización de una única visita anual o incluso menos.*

*Las visitas de tipo religioso generan bien visitas semanales, o bien responden a acontecimientos concretos de interés, en tanto que los tratamientos de salud generan una fuerte relación, ya diaria, semanal o, en una medida ya menor, mensual.*

*El excursionismo es un fenómeno de índole muy comarcal, más que regional, con una afectación reducida a los municipios situados bien al lado mismo de la frontera, o extendiéndose hasta la comarca de Donostialdea. Solo Irún, alcanza a recoger más de 2/3 de las visitas excursionistas, mientras que la mayor parte del volumen restante se reparte entre Donostia y Hondarribia.*

*Fuera de las comarcas limítrofes, Bilbao, por diferentes motivos, es capaz de acoger un contingente significativo de visitas en términos de volumen, con casi 720.00 de ellas, aunque proporcionalmente ello constituya una cifra escasa, menor al 1%. En el caso del turismo de ocio, Bilbao atrae al 2,2% de los excursionistas de ocio.*

EAE etorri diren eta errepidez bidaiatzen duten txangozaleek aukeratutako lekua, bisitaren arrazoiaren arabera 2005
*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por motivo de la visita 2005*

























**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.



Erlijio-arloko edo lan-arloko arrazoiek nolabaiteko sakabanatzea eragiten dute lurraldean zehar, eskualde horietatik haratago, eta honako udalerri hauetara hainbat bisitari iristen dira: Gasteiza, Azpeitira, Eibarrera, Gipuzkoako kostara edo Oarsoaldeko udalerrietara.

Bisita egiteko arrazoia edozein dela ere, txangozale bidaiariak batez ere Bidasoaldeko eskualdeetara eta Donostialdera jotzen du, azken honetara gutxiago bada ere. Argi dago, eta betiere konstante horri jarraiki, kontzentrazio-mailak aldatu egiten direla bisita horren azpian dagoen arrazoiaren arabera. Horrela bada, aisiaren eta lanaren ondorioz bisitariak udalerri askotan sakabanatzen dira, osasun-tratamenduak edo ikasketak direla-eta, ordea, bisitariak mugatik hurbil dauden lekuetan biltzen dira.

Lan-arrazoiek eragindako txangozaleak batez ere Irunen eta Donostian (hemen gutxiago) biltzen dira, bisita guztien 3/4. Nolanahi ere, Oarsoaldeko edo Donostialdeko edozein udalerritara bisita kopuru handia hurbil daiteke. Eragin hori Gipuzkoako lurralde osoan zabaltzen da eta udalerriak zenbat eta urrunago egon mugatik orduan eta txikiagoa da eragina.

Ikasleak hiru udalerritan bakarrik biltzen dira. Ikasle gehien biltzen dituen herria Irun da, nahiz eta Donostia ere erakargarria den ikasleentzat. Eibarrek ere izaten ditu ikasketek eragindako txangozaleen bisitak, nahiz eta gutxiago izan.

Oraingo honetan ere Irunen biltzen dira familia-arloko bisita gehienak; nolanahi ere, Donostiara joaten direnen kopurua ere handia da. Bidasoaldetik eta Donostialdetik kanpo, Eibarko udalerriak familia-arloko bisita asko biltzen ditu.

Osasunak eragindako arrazoiak direla-eta egiten diren bisitak oso udalerri gutxitan biltzen dira. Espezialisten ugaritasunari begira, udalerri nagusia Donostia da, baina Irun ere aipatu behar da.

Erlijio-arloko bisitei dagokienez, Irunez gain, Azpeitia da txango mota horien sustatzaile hoberena.

Irunek biltzen ditu erosketek eragindako bisita gehienak; hala ere, nolabaiteko zabaltzea dago Donostiaraino eta Bidasoaldeko eta Donostialdeko udalerri guztietaraino. Mugatik hurbil-hurbil dagoen zonatik at, Bilbo da erosketek eragindako bisita kopuru handi samarra erakartzen duen udalerri bakarra, nahiz eta kopuru hori oso handia ez izan.

*Motivos como los religiosos o laborales provocan una cierta, pequeña, dispersión por el territorio más allá de estas comarcas, con pequeños aportes a municipios como Vitoria-Gasteiz, Azpeitia, Eibar, la costa guipuzcoana o los municipios de Oarsoaldea.*

*Cualquiera que sea el motivo de la visita, el viajero excursionista muestra una tendencia muy acusada a la concentración en las comarcas de Bidasoaldea, principalmente, y Donostialdea. Lógicamente, pero siempre bajo esta constante, los grados de concentración sí difieren en alguna medida en función del motivo subyacente a la visita. Así mientras ocio y trabajo generan una dispersión que puede aportar viajeros a un número importante de municipios, los tratamientos de salud o los estudios reducen su zona de influencia a las áreas inmediatas a la frontera.*

*Con casi 3/4 del total de visitas, los motivos de trabajo concentran sus excursionistas en Irún, principalmente, y Donostia. No obstante, cualquier municipio de Oarsoaldea o Donostialdea puede recibir buen número de ellas. Esta influencia se irradia a lo largo del territorio guipuzcoano, siendo menor cuanto más lejos de la frontera se encuentran los municipios.*

*Los estudiantes se reparten casi únicamente por tres municipios. El principal receptor es Irún, aunque Donostia también se muestra atractiva para estas labores. Eibar cuenta, a un nivel inferior, con visitas excursionistas por estudios.*

*Irún, de nuevo, es el receptor de la mayor parte de las visitas de índole familiar, aunque su volumen es también muy importante en Donostia. Fuera de Bidasoaldea y Donostialdea, destaca la capacidad de recepción de visitas de orden familiar del municipio de Eibar.*

*Los motivos de salud concentran las visitas en pocos municipios. El principal es Donostia, en orden a la variedad de especialistas, pero también Irún destaca al respecto.*

*En cuanto a las visitas de orden religioso, además de Irún, Azpeitia se constituye como el mejor promotor de esta clase de excursiones.*

*Irún recoge la mayor parte de las visitas por compras, aunque existe cierta irradiación hasta Donostia y hacia el conjunto de municipios de Bidasoaldea y Donostialdea. Fuera de la zona inmediata a la frontera, Bilbao aparece como el único municipio capaz de atraer un número significativo de visitas por compras, si bien poco importante.*

Errepidez bidaiatzen duten eta Euskal Autonomia Erkidegoa aukeratu duten txangozaleek aukeratutako lekua, bisitaren maiztasunaren arabera 2005

*Destino de los viajes de los excursionistas por carretera con destino en el País Vasco por frecuencia de la visita 2005*






















**Iturria/*Fuente:*** Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen araberako banaketari dagokionez, aisiak eragindako bisitek dituzte alde handienak. Gainerako bisitak bezala, Bidasoaldeko eta Donostialdeko eskualdeetan sakabanatzen dira batez ere; nolanahi ere, badaude alde batzuk. Lehenik eta behin, Donostia da bisiten jomuga nagusia, Irunen aurretik. Beste alde batetik, Hondarribia eta Bilbo oso jomuga erakargarriak dira; hala eta guztiz ere, Donostiaren eta Irunen erakargarritasunaren (biena) ordena desberdina da. Aisiak eragindako arrazoiek nolabaiteko sakabanatzea eragiten dute Gipuzkoako udalerri askotara eta orokorrean, kostalde osora. Horri dagokionez, Bizkaiko kostaldeko hainbat udalerritara ere iristen dira bisitak.

Bisitaren maiztasuna edozein izanik ere, Irun da txangozalearen erreferentzia-puntu nagusia, eta bi udalerrien arteko aldea handia bada ere, Donostia da aukeratzen duten bigarren lekua. Muga inguruko eskualdeetako edozein udalerritara, gainera, mota horretako bisitak iristen dira, batez ere bisitak maiztasun handiz egiten dituzten txangozaleenak; hala eta guztiz ere, gorago aipatu ditugun udalerrietako bisitekin alderatzen baditugu, bisita horiek oso gutxi dira. Bisiten maiztasuna handia ez denean, Hondarribia da udalerri hartzaile handiena, udalerri hori ere bi jomuga nagusietara iristen diren bisitarien kopurutik urrun dago.

Aldeak oso nabarmenak ez badira ere, esan daiteke bisitaren egunerokotasuna eta bisiten sakabanatzea handia izatea lotuta daudela. Neurri batean, hori gertatzen da lanak edo familia-arloak eragindako bisitak —normalean bisitaren maiztasuna handia izaten da— luzera begira, gehien sakabanatuta daudenak dira.

Maiztasunak txikiak direnean (sei hilabetean behinkakoak edo gutxiago) bisita kopuruari dagokionez, Donostia Irundik hurbil dago. Hori gertatzen da maiztasun horietan aisiak beste arrazoi batzuen aurrean nolabaiteko indarra hartu duelako. Beste arrazoi horiek dira txangozale kopuru handia sortzeko gai direnak. Ez dugu ahaztu behar aisiak eragindako bisiten jomuga nagusia Donostia dela.

Kostaldeko inguruak hilean behinkako maiztasuna duten bisiten hartzaileak dira, eta leku horietan aisiak eragindako bisitak ere ugariak dira.

*Las visitas por ocio son las que mayores variaciones presentan en su distribución por el territorio vasco. Como el resto, se dispersa fundamentalmente por las comarcas de Bidasoaldea y Donostialdea, pero manifestando algunas diferencias. En primer lugar, Donostia es el destino principal de las visitas, por delante de Irún. Por otro, Hondarribia y Bilbao se muestran como destinos sumamente atractivos, si bien en un orden diferente al de la atracción, común, tanto de Donostia como de Irún. Los motivos por ocio provocan una cierta dispersión, además, por múltiples municipios guipuzcoanos y, en general, por el conjunto de la costa, alcanzando incluso a este respecto a algunos municipios costeros de Bizkaia.*

*Para cualquier frecuencia de visita, Irún siempre se constituye como el punto de referencia esencial del excursionista, con Donostia en un segundo lugar muy distanciado. Cualquier municipio de las comarcas aledañas a la frontera recibe además, a gran distancia, eso sí, de los dos municipios anteriores, visitas de este carácter, especialmente entre los excursionistas con frecuencias de visita elevadas. Cuando no lo son, destaca sobre manera Hondarribia como municipio receptor, a cierta distancia de los dos destinos principales.*

*Aunque las diferencias no son muy acusadas, puede decirse que la cotidianidad de la visita viene asociada a una mayor dispersión de las mismas. En parte, ello es debido a que las visitas por trabajo o de carácter familiar, generalmente con frecuencias de visita muy elevadas, son al tiempo las que presentan dispersiones más elevadas.*

*Donostia logra un cierto acercamiento a Irún en número de visitas cuando las frecuencias son bajas, esto es, una vez al semestre o menos. Ello es debido a que en estas frecuencias el ocio, para el que Donostia el destino de referencia, cobra un cierto vigor frente a otros motivos, particularmente los capaces de generar grandes volúmenes excursionistas.*

*Las zonas costeras se constituyen como buenas receptoras entre las frecuencias de al menos una visita al mes, donde las visitas por ocio también son abundantes.*



# KLIK BAT EGIN ETA TURISMOARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA IZANGO DUZU

# INFORMACIÓN DEL TURISMO AL ALCANCE DE UN CLICK

**www.euskadi.net/turismo**

Euskal TURISMOAREN SEKTORERA zuzendutako WEB PROFESIONALA

- Azterlanak eta Estatistikak
- Dirulaguntzak
- Prozedura Administratiboak
- Kalitatea Sektorean
- Bekak, formazioa eta enplegua
- Seinaleztapen gidaliburua
- Turismoaren Legeria
- Argitalpenak

La WEB PROFESIONAL para el SECTOR TURÍSTICO vasco

- Estudios y Estadísticas
- Ayudas y Subvenciones
- Procedimientos Administrativos
- Calidad en el sector
- Becas, formación y empleo
- Manual de Señalización turística
- Legislación
- Publicaciones

**www.euskadituriismoa.net**
**www.paisvascoturismo.net**

GURE BIDAIARIENGANA zuzendutako TURISMOKO WEB gunea

- Ostatuak
- Mapak
- Garraioa
- Aisialdia
- Gastronomia
- Kultura
- Bidezidorrak
- Biltzarrak eta Azokak
- Kirolak eta natura

La WEB TURÍSTICA para NUESTROS VIAJEROS

- Alojamientos
- Mapas
- Transportes
- Ocio
- Gastronomía
- Cultura
- Rutas
- Congresos y Ferias
- Deportes y Naturaleza

euskadi
atsegin handiz
con mucho gusto

Lanketa / Elaboración: ARALDI
Fotokonposaketa / Fotocomposición: R.G.M., S.A.
Inprimaketa / Impresión: R.G.M., S.A.

ISSN: 1699-342X
Lege Gordailua / Depósito Legal. SS-1167/2000

Argibide gehiago behar izanez gero:
Harremanetarako telefonoa: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo | Euskal turismoaren estatistika orikorrak
www.eustat.es

Para más información:
Teléfono de contacto: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo | Euskal turismoaren estatistika orikorrak
www.eustat.es

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz